

## NOLA BABESTU ZURE PRIBATUTASUNA: GIDA DIDAKTIKOA

Eskuliburuari buruzko informazio orokorra:

1. Materialak laneko 3 unitate ditu, eta unitate bakoitzak hainbat jarduera, informazio garrantzitsua, zenbait bideo eta beste informazio iturri batzuen aipamenak biltzen ditu.
2. Hiru unitateen egitura antzekoa da. Bi atal nagusi bereziten dira: lehenengoa jarrera proaktiboa garatzeko proposamen bat eginez hasten da, eta jarrera hori sustatzeko hainbat jarduera eskaintzen ditu, eta, horretarako, lagungarria da geroago gehitzen dituen benetan gertatutako hiru adibideak. Bigarrenak agerian uzten ditu jarrera proaktibo horren faltak ekar ditzakeen ondorioak. Bigarren atal honek ere hainbat jarduera, informazioa eta benetako kasuak aurkezten ditu.
3. Azken helburua da jarrera proaktiboak sustatzea pribatutasunaren kontrolaren arloan, hau da, gure asmoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera kritikoa egitea lortzea, eta ez da inondik inora zalantzan jarri nahi teknologien erabilera bera.
4. Materiala dagoen bezala erabil daiteke, hau da, unitateen hurrenkera segituz, ala bakoitzak nahi duen ordenan.
5. Gida honen xedea da ariketak egiteko zenbait ideia proposatzea, baina ateak zabalik uzten ditu bestelako aukerak eta lan proposamenak ere erabiltzeko.
6. “Jarduerak” eta “Zuk zer uste duzu?” atalen arteko bereizketa ez da zehatza. Lehendabizikoak nerabeen eguneroko bizitzan ohikoak diren egoerei heldu nahi die, besteen sinesmenak eta nahiak deskubrituz. Bigarrenak, ordea, gazte edo ikasle bakoitzaren bizitza pertsonalarekin zuzenean lotutako jarduerak proposatzen ditu. Beraz, berdin dio batarekin nahiz bestearekin hasi; eta biak batera ere egin daitezke.
7. Gida honek “Zuk zer uste duzu?” atalean jasotako arazoak lantzen ditu. “Jarduerak” lantzeko, malgutasunez jokatzeko ahalbideratzen duen eredu orokor eta ireki bat proposatzen du.
8. Pribatutasunari eta heziketa eginkizunari buruzko kontsulta material osagarria eskaintzen da, garrantzi handia baitu familientzat eta ikastetxeentzat.
9. Hezkuntza erkidegoko pertsonaren batek (bereziki nerabea bada) arazoren bat badu bizitza pribaturako eskubidearekin eta bere informazio pertsonalaren babesarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko telefono honetara dei dezake: 945 01 6235 (eta Edurnez galdetu).

# 1. UNITATEA: Irakaslearekin, aitarekin eta amarekin nuen bilera ondo zihoan...

## Utz zaitzatela bakean, eskubidea duzu eta! (portaera proaktiboa)

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
Familiak zuri buruzko gauzak jakiteko eskubidea du, baina non dago muga?	Zerrendatu familian dauden pribatutasun esparruak eta sailkapen bat egin: zeintzuk diren norbere esparrukoak bakarrik eta zeintzuk esparru partekatukoak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idea-jasa</li> <li>Mahai-ingurua</li> <li>Norbere aukera. Eman idatziz</li> </ul>	<a href="#">Haur txekiar baten kontakizuna bere egunerokoari buruz eta nola baimenik gabe irakurri zuten (ingelesez)</a>	1. Ikasle bakoitzak familia barruko esparru pribatuen sailkapen bat egin du.
Ikus dezakete zer gordetzen duzun gau-mahaian?	Esplizitatu dugun pribatutasun irizpidea kontuan hartuta hartzea erabakiak.  Finkatzea norbere eta inoren eremu pribatu subjektiboa eta nola aldatu den denboran zehar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mahai-ingurua</li> </ul>		Zerrenda bat egingo da iritzi guztiekin eta eman dituzten argudioekin.
Ondo iruditzen zaizu zure ordenagailuan sartzea zein web orritan ibiltzen zaren ikusteko?	Eztabaidatzea ea bidezkoak diren ala ez esparru pribatuetan zenbaitetan egiten diren gainbegiraketak, portaera disfuntzionalen eta informazio faltaren aurrean kontrol-informazioa eskuratzeko.			
Zure ustez, zein da adin egokia familiak egiten duzun guztiari buruzko informazioa eskatzeari uzteko?	Bereiztea zein eskubide dagozkion legezko adin nagusitasunari eta zein eskubide subjektibok duten zerikusia pribatutasun pertsonalerako esparruen premiarekin eta norberari buruzko informazioa kontrolatzeko premiarekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taula/Rol jokoa</li> </ul>	Gurasoei edo beste senide helduren bati galdetzea ea gaztetan kontrolik gabeko zein esparru pribatu zituzten (adibidez, bakarrik irteteko adina, neska edo mutil laguna izateko adina ...).	3. Nerabeen hiru aldagarri hauek lotzea: konfiantza/kontrola, pribatutasun gehiago/gutxiago eta nerabeen adina.  4. Adin nagusitasunak dakartzan eskubideak alde batera utzita, pribatutasunerako eskubideaz baliatzeko adin mugak adostea.
Goiko adibide horiek kontuan hartuta, kasu bakoitzean adin muga jakin bat jarri beharko litzateke? Hala pentsatuz gero, zein dira adin muga horiek?				

## Ba al dakizu nor ari den zuri begira? (Arriskua)

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
<p>Nork izan beharko luke ikastetxean erabiltzen duzun ordenagailuko informazioa eskuratzeko aukera? Irakasleek? Gelako ikaskideek? Gurasoek?</p> <p>Zer ikusteko aukera izan behar dute, eta informazio hori nola erabili behar dute?</p>	<p>Zehaztea zein toki dagokion pribatutasunari, baliabide tekniko publikoak eta partekatuak erabiltzen direnean.</p> <p>Alde ona ikustea erakundeen pribatutasunerako politiken gardentasunari.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde elkarreragilea</li> </ul>	<p><a href="#">Finlandiak baimena eman die bertako enpresei eta erakunde publikoei langileen posta elektronikoa kontrolatzeko</a></p> <p>Andereño isekariaren bideoa<sup>1</sup>. <a href="http://www.kontuzdatos.info">www.kontuzdatos.info</a></p>	<p>5. Baliabide tekniko publikoak eta partekatuak erabiltzean dauden pribatutasun mailak sailkatzeko irizpideak adostu dira.</p> <p>6. Ikasleek badakite ikastetxeak IKTn erabilera desegokiak saihesteko neurriak jarri dituen ala ez.</p>
<p>Ikastetxeak ikusten badu <i>bullying</i>-kasuren bat gertatzen ari dela bertako sarearen bidez, zuzendaritzak sisteman sartzeko aukera izan behar ote du gertatzen ari dena aztertzeko eta tartean nor dauden jakiteko?</p>	<p>Pribatutasunaren balorea hierarkia baten arabera antolatzea, eta zehaztea zein garrantzi duen beste balio batzuekin talka egiten duenean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde elkarreragilea: arazo morala</li> </ul>	<p><a href="http://www.kontuzdatos.info">www.kontuzdatos.info</a>-ko Marius izenburuko bideoa.</p> <p><a href="#">Sarean dauden arriskuei buruzko eztabaida bat komunikabide batean</a></p>	<p>7. Ondo bereizten da zein baldintzatan den pribatutasunaren balioa lehentasuneko eta zeinetan den mendekoa.</p> <p>8. Denek dakite ikastetxeak bertako sarearen erabilera desegokiak egiten dituzten pertsonak identifikatzeko aukera duen ala ez.</p>

<sup>1</sup> 1. bideoan andereñoaren portaera protagonista gaztearen ikuspuntutik ikusita dago; izan ere, gazteak uste du irakasleak burla egiten diola oker bat egiten harrapatu duelako eta gurasoen aurrean salatzen duelako, aldez aurretik heziketarako tarte bat gorde gabe berarekin bakarka egoteko. Bideoaren xedea ez da irakaslearen eginkizun hezitzailea kritikatzeko, baizik eta gazteei azaltzea haiek egiten dutena beste batzuk ikus dezaketela. Mariusen bideoan, ordea, irakasleen eginkizunen alderdi hezitzailea ikusten da, laguntasun emozionala emateko gaitasuna aitortuz.

**2. UNITATEA: Jolasean ari nintzen... eta intro tekla sakatu nuen nahi gabe!  
Zeu zara zeure buruaren editorea (portaera proaktiboa)**

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
Inoiz damutu izan zara zuri edo beste batzuei buruzko zer edo zer sarera bidali izanaz?	Internetek eskaintzen dizkigun aukeren artean erabilera desegokiak aurkitzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Post-it</i>, mahai-ingurua</li> </ul>	<u>Think before you post it.</u> serieko bideoak ikustea Googlen.	9. 5. adierazlea erabiliko da.
Horrelakorik gertatu bazaizu, zertaz damutzen zara?				
Zergatik uste duzu bidaltzen dituztela batzuek euren irudiak Tuenti, Youtube, MySpace, Facebook eta gisako sare sozialetara edo web-orrietara?	Eztabaidatzea norberari buruzko informazioa sortzeari buruzko eskubideaz, norbere burua erakutsi beharraz eta gune publiko batean komunikatu beharraz.		“Tuenti” edo antzeko sare sozial bateko kide den ikasle batek prestatu dezake saioa, bere orria aurkeztuz eta azalduz ea zergatik esan zuen eta erakutsi zuen gauza bakoitza esan eta erakutsi zuenean.	10. Formula idatzi bat egin eskubide hori eta komunikatzeko premia adieraziz bertan.

## Edonork suntsi dezake zure ospe ona! (Arriskua)

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
Batzuek diote Interneten bidez eta telefono mugikorren bidez errazagoa dela inor beldurtzea. Zuk zer uste duzu?	<p>Konturatzea sareko komunikazio elektronikoak zein inpaktu handia duen (bai denbora aldetik bai harrapatzen duen pertsona kopuruaren aldetik), eta konturatzea hori kontrolaezina dela.</p> <p>Konturatzea komunikabideak kontrolatzeak ematen duen botereaz.</p>		<p><a href="#">Nola hackeatzen da lehendakariorderako hautagai baten posta elektronikoa?</a></p>	11. Azaldu dute (ikasleen ingurunean) baten bat beldurtu duten ala ez, eta adibide zehatzak jarri dituzte.
<p>Pentsa ezazu orain arte zelako mezuak eta irudiak bidali edo birbidali dituzun. Zure ustez, horietako baten bat norbait iraintzeko modukoa izan zitekeen?</p> <p>Zergatik, nola?</p>	<p>Komunikabide digitalek sortutako mezuak aztertzea, bidezkoak diren ala ez esanez, kontuan hartuta ea pertsonen eskubideak (irudia, ohorea, pribatutasuna, intimitatea ... ) errespetatzen dituzten ala ez .</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberak dakarrena</li> <li>• Mahai-ingurua</li> </ul>		12. Zerrenda bat egitea mezu bat bidezkoa den ala ez adierazten duten ezaugarriekin (hau da, pertsonen eskubideekiko errespetuz jokatzeko duen ala ez).
Zer egiteko edo esateko aukera izan duzu linean ( <i>on-line</i> ) eta benetako bizitzan ez zenukeen sekula esan edo egingo?	<p>Egiaztatzea komunikabideak kontrolatzeak ematen duen boterea erabili egiten dela.</p> <p>Konturatzea komunikazio digitalean itxuraz anonimatuari gaudela pentsatzeagatik, alde batera uzten ditugula gure mezuek besteengan izan ditzaketan ondorioak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberak dakarrena</li> </ul>		13. Linean izandako portaeren adibideak jarri dira, eguneroko bizitzako portaerekin zehazki ez dutenak.
<p>Inoiz bidali al du baten batek zuri buruzko informaziorik sarera? Norberak dakarrena</p> <p>Horrelakorik gertatu bada, gustatu zitzaizun ikusi zenuena? baimenik eskatu al zizuten?</p>	<p>Aztertzea komunikabideek sortutako mezuek izandako ondorio pertsonalak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberak dakarrena</li> </ul>		14. Sareko informazioek bizitza pertsonalean duten ondorioei buruzko adibideak jartzea.

### 3. UNITATEA: Primeran pasatu nuen... baina ahaztu egin zitzaidan bideokamera bat zegoela izkinan! Seguruago ote gaude kamerekin? (portaera proaktiboa)

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
Zure portaera aldatzen duzu kamera bat zu grabatzen ari dela jakinik?	Bereiztea zer den zaintzea eta zer den kontrolatzea Jabetzea bideo-zaintzak portaeretan izan dezakeen eraginaz Arrazoizko argudioetan oinarritzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde elkarreragilea</li> </ul>	<a href="#">“Primeran pasatu nuen... baina ahaztu egin zitzaidan bideokamera bat zegoela izkinan!”<sup>2</sup></a> izenburua duen 3. unitateko bideoa.	15. Ekintza bien ezaugarriak zerrendatu dituzte eta egoera egokiek lotu dituzte.  16. Aldeko eta kontrako argudioak zerrendatu dituzte.
Ondo iruditzen zaizu baten bat egiten duzun gutzia ikustea egotea?	Arrazoizko argudioetan oinarritzea zaintzako kameren gaineko balioespenak.			
Leku publikoetan bideo-zaintza sistemak daudelako – ikastetxeetan, autobusetan, ...– gerta daiteke inguruko pertsonen ez arduratzea? Ez ote gara ari erantzukizun guztia kameraren esku uzten?	Ekarpenak egitea segurtasuna eta erantzukizuna direla-eta gaur egun dagoen eztabaidari.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norbere hausnarketa</li> <li>Mahai-ingurua</li> </ul>	<a href="#">Neska ekuadortar bat jo zuten metroan eta gainontzeko bidaiariek ez zuten ezer egin.</a>	17. Ikasle bakoitzak bere ikuspuntua adierazi du idatzi labur batean (paperean, <i>blog</i> ean, <i>wikian</i> ...).
Imajina ezazu ikasle bati diru-zorroa lapurtzen diotela ikastetxeko aldageletan. Kamera bat jarri beharko lukete tokia zaintzeko?	Ekarpenak egitea segurtasuna eta pribatutasuna direla-eta gaur egun dagoen eztabaidari.			
Baitez uste baduzu, zertarako uste duzu jarri beharko litzatekeela, delituak prebenitzeko ala delitu horiek argitzeko geroago?	Kameraren eginkizunak eta kamerak erabiltzeak izan ditzakeen abantailak eta eragozpenak kontuan hartuta, era kritikoa aztertzea zaintzako kamerak bidezkoak diren ala ez.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norbere hausnarketa</li> <li>Mahai-ingurua</li> </ul>		18. Ikasle bakoitzak bere ikuspuntua adierazi du idatzi labur batean (paperean, <i>blog</i> ean, <i>wikian</i> ...).
Zein ondorio izan ditzake bideo-kamera jartzeak?				

<sup>2</sup> Bideo honek harritu egiten du ikuslea; izan ere, ikusleak ez baitaiki zein den protagonista nagusiaren hasierako asmoa, eta bideo kamera batek harrapatzen duelako hark egiten duena. Zehatz esateko, bideoan ikusten da gazte bat gauza bitxiak egiten (prakekin jolasten du, apur bat jaisten ditu ...) eta bera dagoen tokian zenbait pertsona sartzen direla eta harrapatu egiten dutela zerak egiten. Orduan mutila erdi biluzik dagoela disimulatzen ahalegintzen da, baina azkenean lurrera erori eta barrez hasten da. Azken finean, adierazi nahi dena da lortu ahal dugula besteen begiradatik ezkatutzea zenbait jarrera edo asmo, baina beti ezin dugula saihestu ahaztuta dugun zaintzako kamera batek egiten ari garena graba dezakeela. Asmoa ez da inor mintzea mutila erdi biluzik azalduz, baizik eta arrera erakartzea, hau bezalako portaera bitxi baten bidez.

## Baten bat dabil zure aztarnei segika (Arriskua)

Zuk zer uste duzu?				
Galdera	Helburua	Tresna	Baliabideak	Ebaluazio adierazlea
<p>Pertsona guztiak zaintzapean dituen gizarte bat hobea izan daiteke, bertan delitu gutxiago egon daitezkeelako?</p>	<p>Segurtasuna eta pribatutasuna batzen dituen aukera bideragarriak aztertzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikia: iritzia</li> <li>• Puzzlea: taldeen arteko iritziak trukatu dira eta gero talde bakoitzak hasieran zuen iritzia berregingo du (beharrezkoa iruditzen bazaie).</li> </ul>	<p>Ingalaterrako administrazioak gizarte-arreta falta eta delinkuentzia prebenitzeko daukan adin txikikoei buruzko datu-baseen gaineko txostena (Ikusi honako dokumentua Hezkuntza Material Osagarriaren atalean: <i>Haurren Informazio Pertsonala Babesteko Jarraibideak</i>).</p>	<p>19. Talde txiki bakoitzak gaia aztertu du, proposamen bat egin du eta guztien aurrean agertuko du (paperean, <i>blog</i>ean, <i>wikian</i> ...)</p>
<p>Ados al zaude?</p>				
<p>Haur jaio berri guztiei ADN proba egitea eta ADN datu-base bat sortzea baliagarria izan daiteke etorkizunean egon daitezkeen delituak argitzeko? Zure ustez egokia izango litzateke gurean horrelako datu-base bat sortzea?</p>				
<p>Zein motatako arazoak sor daitezke?</p>	<p>Populazio zati handi bati buruzko sekulako informazio piloa pilatu ahal izateak ekar ditzakeen arriskuak aztertzea.</p>			